

Mugak

Olerkarien Udaberria

Kontzertu, Antzerkia,
Bertsu, Hitzaldia,..



Senpereko herriak olerkigintza ospatzen du Olerkarien Udaberria gertaldi nazionalari parte hartuz. LARREKO Kulturgunean eta Mediatekan gertakari ainitz proposatuak izanen dira, 5. Artearen amodioa, hitzen maitasuna eta libertatea partekatzeko.

EGITARAUA

Martxoaren 14a, astearterekin, Mediatekan

Olerki irakurketa ttikiak bi partetan

- Arratsaldeko 5-ak eta erditik 7-ak arte

Liburuzainek hautatutako testu pollitak entzun ahalko dituzu. Denbora horren bitartean, maitatzen duzun olerki bat partekazen ahalko duzu eta idatzi duzun olerki bat ere bai.

Haurrentzat egina, memento hori krakada batekin bukatuko da.

Denentzat libro

- Arratseko 7-tik 8ak eta erdi arte

Testu eder horien gainetik, Mediateka zure autoreak, maitasunak eta konposaketak partekatzerat gomitatzen zaitu ! Ez dudatu eta zato, mikroa zurea da jentarteko memento horrentzat.

Zintzur bustitze batek irakurketa denbora hori bururatuko du, Itxaro BORDA idazlearekin elkarretaratzearen aintzin.

Denentzat libro



Itxaro BORDA eta Séverine DABADIE-rekin irakurketa eta mintzatzea bere liburuari buruz : « Herri hau poema bat da », arratseko 8-ak eta erditan.


Itxaro BORDA-k euskaraz eta frantsesez bere olerki batzuk irakurtuko ditu, Séverine DABADIE-ren argazkiak inspiratu dizkituenak. Irakurketarekin bertan, argazkilariak bere irudiak proiektatuko ditu.

Hori eta gero, eztabaidak eta irakurketak segituko dira, « Haiku » idazketa tailer batekin bururatuz, Japoniar olerki ttikiak dira. Parte hartzaileek « Haïkua » frantsesez ala euskaraz idaztea posible izanen dute, denen aintzinean irakurtuz.

Denentzat libro

Martxoaren 16a, ostegunarekin

« Théâtre Mon Amour », LARREKO
Kulturgunean, arratsaldeko 2-etan
Maitasunaren pasioa bere forma guzietan,
bainan antzerkian maitasuna oroz gainetik,
dramagile anitzen tinta isurarazi duen gai
horrek : Musset, Racine, Shakespear...
Cendrine Garry Santamaria-rekin, Leonardo
Alejandro Hincapié-k taularatua.
Denentzat libre



MAHAI INGURUA/TABLE RONDE

MUGA: ATZOKO BIZIPENAK ETA GAURKO ERRONKAK
LA FRONTIÈRE: SOUVENIRS D'HIER ET LES DÉFIS DE DEMAIN
AVEC ELENA CASIRIAIN, IBAN LARRANDABURU ETA ELIXABET ETXANDIREKIN
ANIMÉ PAR XALBAT ALZUGARAIK ANIMATURIK



MARTXOAREN 16 MARS

À 19:00ETAN

SEMPEREN/SAINT-PÉE-SUR-NIVELLE

SALLE LARREKO GELAN

LANKIDETZAN-EN PARTENARIAT AVEC



Mahai borobila euskaldun bertsularieri buruz,
Martxoaren 16an, ostegunarekin, LARREKO
Kulturgunean arratseko 7etan.

Muga : atzoko bizipenak eta gaurko erronkak
Zer da muga eta zer eragin du gure bizian ?
galdera honi erantzuteko Elixabet Etxandi,
Historian lizentziatua eta bi nafarroen arteko
kontrabandan aditua, Iban Larrandaburu,
mugazgaindiko lankidetzan eta zuzenbida
publikoan doktoregaia eta Elena Casiriaín
antropologian doktoregaia bildu ditugu.
Denentzat libre - Eusko Ikaskuntza
Iparralde-rekin lankidetzan



Martxoaren 17a Ostiralarekin

Bertso poteoa, arratsaldeko 6-ak ta erditan.

Frantses eta Euskarazko olerkien irakurketa « Bertsulari lagunak » elkartearen kideen partez pintxo pote denboran.

Denentzat libro

Tapas

Martxoaren 18a Larunbatarekin

Tapas gaualdia Arbaso elkarteak proposaturik, LARREKO Kulturguneko barneko atarian arratseko 7-etan

Tapas gaualdi baten denboran, adierazpen libro momentu bati gozatu ahalko duzu, zure olerki irakurketak partekatzea posible izanen duzu.

Denentzat libro

Wanda et Daitoha kontzertuan, larunbatarekin LARREKO Kulturgunean arratseko 8-etan Gaualdi baten paradan, Daitoha rapero/slamlari-ko hitzen indarrak eta

Wanda musikariaren goxotasuna bidaiaraziko zaituzte.

4€-tik goiti - Denentzat libro

